

CADIZKO KONSTITUZIOA EUSKARAZ 1820

Donostia, 1987-IV-24

Juan San Martin

Duela hilabete Hondarribiko Kaputxinoetatik Aita Zubeldiak telefonoz deitu ninduen, ahal nuenean hara joan nendin Biblioteka atontzean aurkitu zuen eskuizkribu bat ikus nezan: 1820. urtean euskarara itzulitako Konstituzioa.

Gerorako utzi gabe, ordu berean joan nintzen eta txukun koadernaturik gordetzen zen liburuxka eskuratu zidan. Ez zuen itzultzailearen izenik, apez-bikario gipuzkoar baten sigla soilak baizik. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekarako fotokopiatzen uztea eskatu nion eta hala bete ahal izan dut.

Euskaldunon foruak gogoan harturik inoiz madarikatu dugun Cádizko Konstituzioa, lehen erregeren pertsonarekin zegoen konpromisoa korreen esku uzten zuena, garai beretik ikusia ez dirudi hemen ere gehien-goarentzat hain txarra zenik. Aintzinako errejimenaren legedia zaharkituegia bai zegoen orduko Europaren mailetara hurbiltzeko, Euskal Herritik begiratuta ere.

1808an Korteetarako deiak hasi zirenetik Euskal Herriko semeak presente daude Konstituzio berrigintzarako. Hiru talde politikok osatuz lejislatzaile egingo zuten diputatu ordezkariena: *liberalak*, aldakuntzen aldeko eta Frantziako iraultza begionez ikusten zutenen taldea; *zerbitzailak*, aldakuntzen kontrako konserbadoreena; eta, *amerikanoak*, kolonien ordezkari. Hiru taldeetan zeuden Euskal Herriko semeak. Ramón Solísek bere ikerketan ere nabarmen azaltzen digu (1).

Gauzonerako beranduegi aritu ziren, eta gainera Estaduaren parterik gehiena frantsesen menpean zegoen garaian, ezinbestean, eta ondorioak laster ikusiko ziren aski abandonaturik aurkitzen zen Amerikak independentziaren alderako jarrera hartuz eta Penintsulan bertan gerra zibilak

(1) RAMÓN SOLÍS: *El Cádiz de las Cortes* (Plaza-Janés, S. A., Barcelona, 1978). 99. orrialdean zehazki baina liburu guzian zehar agertzen zaizkigu euskaldun deiturak.

pizteaz. Alderantziz, Inkisizioaren bukaera ez-ezik, laboraritzaren erreforma, gizartea klaseen menpekotasunetik libratzea, eta abar. Gregorio Marañonek esango zigunez: “Las Cortes de Cádiz no fueron perfectas, puesto que estaban constituidas por hombres y puesto que eran un instrumento político, y todos los políticos son vivencias de ocasión, precederas. Pero esa eficacia cronológica, que en los casos afortunados pueden tener un hecho político, la tuvieron ellas” (2).

Gure herritarren joerak ezagutzeko nahikoa adierazgarriak dira honako joera hauek: alde batetik Migel Lardizabalek erreformaren kontra idatzi zuen manifesto eta bestetik Migel Zumalakarregiren proposamena Cádiz-ko bikarioa eta hiru kalonje prozesu edo auzi batera salatuz (3). Hala ere, Konstituzioa euskaratu zuen apez bikarioak Migel liberal buruzagi honi egiten dio itzulpen eskuizkribu honen eskaintza.

Egia esan, Cádizen Konstituzioaren garaian ideiaz elkarregandik hurbilago zebiltzan. Setakeriak geroztik agertu bai ziren. Tomas jeneral izango zenak, egun haietan, diputatu liberal zen bere anai nagusiari laguntzen zion, une berean hango Militar Akademian Espartero ikasle zela. Nork pentsa Espartero eta Zumalakarregi elkarrekin paseatu zitezke-nik? (4).

Aurten ehun eta hirurogeta hamabost urte betetzen dira Konstituzioa proklamatu zenetik. Garai nahasia zen hura, 1812ko San Jose egunez onartu zenekoa. Askorentzat esperantzaz betea, inkisizioarekin bukatuz “Biba La Pepa” bizitzeko, eta beste askorentzat hondamenezkoa, iraultzaren deabrukeria nagusituko zen beldurrez. Arazo guzien artean euskaldunak buru-belarri sarturik agertzen zaizkigu.

Ameriketarako merkataritza zerbitzuak Sevillatik Cádizera igaro zirenetik hazkuntzaz goraka zetorren hiri hau, XVIII. mendearen hondarretarako aberatsena bihurtu arte. Han ziren euskaldun merkatarriak, itsasgizonak, eta azkenik politikoak. Adibide gisa, han jarri zen 1802. urtean suzko armen fabrika Plaentzia-Soraluze eta gure inguru horietako armaginez hornitua. 1812ko lehen hilabeteetan Cádiz nabari zen baikortasunez hiri hertsi hura idekiz, kanpokaldera handitzeko, “ensanche” zeritzan asmoak agertu ez ezik proiektatu eta hasi ere egin zuen hango Bellas Artes Eskolan Arkitektura irakasle zen Pedro Albizuren proposamenez, Torregorda eta Santi Petri bitarteko auzo berrian, “Eli-Erri” izenez baliatuz (5).

(2) GREGORIO MARAÑONEK, RAMÓN SOLIS-en: *El Cádiz de las Cortes*-i egin zion hitzaurrean.

(3) *Diccionario Enciclopédico Espasa*, X. tomoa, 338 orr.

(4) RAMÓN SOLIS, aipatutako obra, 110. orr.

(5) RAMÓN SOLIS, a. ob., 49, 50, 107 eta 416. orr.

Napoleonen menpeko zen Espainiarik gehiena, herriak meatxutzat ikusten zuelarik, baina bestalde liberaltasunaren haizeak ekintza gizonik gehienak biltzen zituen Cádizko hiri hartan. Han bertan idea desberdinetako gizonak, neurri handi batean elkarri amore emanez gizartea berpizteko lege berriak sortzen, *Habeas corpus* oinarri.

Egoera horretan, Cabrera Magistral ospetsua aurrenengo zelarik, erraz ulertzekoa da apez askoren liberaltasuna eta horietakoa genuen, "Apez Vicario Dr. D. J. F. A. Guipuztarrac", 1820an Konstituzioa euskaratu zuena. Sigla horiek baizik ez ditu ematen, baina uste dut lortuko dugula nor zen.

Bere letra, garbia da. Itxura denez euskaraz idaztera ohitua, eskuizkribu honek erakusten digunaren arabera. Gipuzkeraz idatzia baina Larra-mendiren hiztegiak ondo kutsaturik.

Lastima da guk oraindik asmoetako euskal idazleen paleografia katalogoa burutu gabe edukitzea. Azkue Bibliotekako agiritegian holako katalogoa horniturik edukitzeaz lagungarri izango litzazuke era honetako ikerketak bizkortzeko.

Euskal idazle ezagunen artean ez dut aurkitzen sigla horiekin datoren apezik.

Oso bitxia da liburutxoaren eskaintza: "Dn. Miguel de Zumalacarre-gui Goitico Conseju Justiciacoaren Ministroari donquitua. ¿Nori besteri berorri baicic leguez, ta bidez, eta arrazoi andiarequin esqueñi, eta donquituco diot erderatic eusquerara itzulitaco liburu berez chiquichoa, baña izatez, eta bere jajot-iturrian chit andia, eta aldegucietara miragarria dan au?...". Laudorio horiekin hasten du eskaintza luzea, lehen bost orrialdeak hartzen dituena. Aurreraxeago, Migelen izena goosten du Konstituziogintzan izan zuen partaidetzagatik: "...jaquinaren gañean, ez duala berorrec, dudagabe, parteric chiquiena izandu obra mirarizco au asizanetic caburaño? Gauza aguiria da; cerren bestela etzuan inñolaz ere berorrec aimbestebait Etsai izango, ezta ere aimbeste pena, eta atsecabe sufriquin...". Garai bereko lekukotasun gihartsua ematen digu bere eskaintza honek. Gainera, nork esan, apez liberalaren gogoak gainak hartzeaz gipuzkoarren leialtasuna ez ezik odol garbia eta noblezia ere aipatuko ziguunik, Konstituzioaren kontraesanetara. Lerro batzu aurrerago hau irakurtzen bai dugu: "bere guipuzcoatarren odol garbi, nobleac eransicion sorcetic berorri leialtasunaren sillu estimagarria". Eta bukaeran umil aitortzen du, "Berorren Servitzari, eta Capillauric chiquiena Dr. D. F. A."

Tomas Zumalakarregi jeneral karlistaren helburuetariko asmoak ez ziren ondo ezagutzera heldu. Hala ere bistan da pentsakeraz eta ideaz anai nagusiarengandik desberdina zela. Behar bada 1812ko gertakarien ondoreak hala erakutsirik. Baina oso garbi dagoena da Migelen jokabidea,

eta gogoangarria ahantzirik badugu ere. Ponte izena Migel Antonio zuen eta hamaika anaietatik zaharrena zen. Idiazabalen jaioa 1773ko Otsailaren 20an. Jurista zenez Justiziako Ministraria izateraino iritsi zen. Gipuzkoako diputatu ordezeko hartu zuen parte konstituzioaren prestakizunetan hasiera beretik, inoiz Korteetako idazkari eta buru eginez. 1815ean "francmason"tzat salatutik epaitua izan zen (6). Fernando VII.ak bere bigarren manifesto hura eman zuenean 1824ko Urriaren lehenean, politikatik erretiratu zen eta ez zen itzuli erregea hil arte. Anaia Tomas hil zenean Burgos-ko Real Audiencia-ko buruzagia zen eta 1836an Tribunal Supremo de Justicia-ko ministraria izendatua eta 1842an Gracia y Justicia-koa. Bere heriotzatik hamar urtera, 1856an, Gipuzkoako Batzar Nagusiak Elgoibarren bildurik bi anaia ospetsuei monumentua eraikitzea erabaki zuten, baina geroago, karlistek Tomas jeneralari eraiki zioten Zegamako parrokian eta geroztik inor ez da oroitu Migelekin (7).

Eskuizkribua, Larramendiren hiztegiak kutsaturik dagoenarren, gipuzkera jatorrez idatzia da. Bere luze-zabal neurriak 15 × 10 zm., 108 orrialde bi alderdietatik idatzirik, lehen orrialdea azal gisa eta hirugarrenetik zazpi-garreneara arestian aipatutako hitzak atera ditugun eskaintza luzea. Azalekoan aurkezpen hau dakar:

*Jaquin-bide Iritarautia
Españiaco
Neurquidaren, edo Constitucio
berriaren erara adrezatua,
Erritarren arguidoraraco,
Gazteen icasbideraco, eta
Escola-maisuen usoraco
Erderatic Eusquerara itzulidu
Apez Vicario
Dr. D. J. F. A. Guipuztarrac.
1820. Urtean.*

Honako liburuxka hau eta hitzaurre gisa daraman eskaintza, lekukotasun bat gehiago dugu Cádiz-ko Konstituzio hura Euskal Herrian orokorki onartua izan zenarena. Baina 1920-23. hirurteko agente hartan (erdaraz *trienio* bezala hain ezaguna dena) liberalek sartu zituzten aldakuntzak sumindurik utzi zuen Euskal Herria. Ordurarte gehiengoek ontzat ikusia, kontrako bihurtu zen eta hortik sortu ziren geroako nahaspilak, iskanbilak eta gerrak.

(6) FAUSTO AROCENA: *Diccionario Biográfico Vasco (I.-Guipúzcoa)*. (Donostia, 1962, 206. orr.

(7) *Dicc. Enc. Espasa*, LXX. tomoa, 1509. orr.

Adibidez, gai hau, 1823. urtean Bizkaiko Batzarren agiriz eta Mahn-en bildumako bertsoz Alfonso Irigoyen euskaltzainak eman zuen “Konstituzioko dama eta beltzak 1823-garren urteko Markina, Xemein eta Etxebarrin” (8).

C. A. F. Mahn-en bilduma, 1857koa, oraintsu *Egan*-en berargitaratua dugu (9) eta han bertan datoz, fotokopiaturik, Bilboko Basozabalenean 1823.ean argitaratu ziren bertsoak.

Bertso horiek, Mogel neba-arrebak eginak ez badira, Juan Antonio zenaren iloba horiek ez ziren urruti ibiliko. Bizenta Mogel, kantok inprimatu ziren etxe jabea zen Eleuterio Basozabalekin ezkondua zen eta badakigu 1818an V. M. B. letraz izenpeturik “Gabon-kantak” argitaratu zituela, Lino Akesolok aski argi jarri zigunez (10). Mahn-en bilduman “Constituzinoeco damiari” deritzaten bertsoen aurretik 1819an Abando-ko elizarako “Gaboneco cantia” ere iturri bereko iduritzen zaigu (11).

Baina, Konstituzioari jarraituz, argi dago “Trienio Constitucional (1820-1823)” hark deuseztu zuela Cádiz-koa. Korteak, Foru Diputazioak lehenagoko agindurik gabe eta gainerako probintzietako en mailara jartzea ekarri zuen, Batzar Nagusirik gabe, 1837ko Irailaren 16an erabaki zenaren arabera, eta itxura denez Joakin M.^a Ferrer pasaiarra eta Miguel A. Zumalacárregui idiazabaltarra tarteko zirela, diputatuen onespenez (12). Beraz, historia hori aztertzean, gauza bat utzi behar dugu garbi: Cádiz-ko Konstituzio bera (1812) orogandik onartua izan zela; baina ondoko Hirurteko hura (1820-23) ez. Behar bada, hori zen arrazoia Dr. D. J. F. A. zelako gipuzkoar apezaren itzulpen hau, 1820an idatzia, inoiz ez argitaratzeko.

(8) ALFONSO IRIGOYEN: “Konstituzioko dama eta beltzak 1823-garren urteko Markina, Xemein eta Etxebarrin”, *Zeatz*, II, 3.4, 1987ko Uztaila (Abendua), 43-70. orr.

(9) “C. A. F. Mahn-en eta bertso bilduma. Berlin, 1857” (PATRI URKIZUK prestatua), *Egan*, 1986ko 1-2 zenbakia, 13-84 orrialdeak (kus 30-52. orrialdeak).

(10) L. AKESOLO (“Axmutil” izen ordez): “Euskal-esnale ta euskal-idazle Yose Paulo Ulibarri”, *Oleri*, 1962, I-II, 133. orr. Eta egile ber-berak berriz aipatuko zuen “Romanista y vascólogo ilustre: Carlos Augusto Federico Mahn” lanean, *La Gran Enciclopedia Vasca*, II, 1967, 392-393. orrialdeetan.

— J. SAN MARTIN: “Bizenta Mogelen mendeurrena”, Donostiako *Hoja del Lunes*-en, 1982ko Ekainaren 7an.

(11) Ikus C. A. F. MAHN-en aipatutako lan hori *Egan* aldizkari beraren 22. orrialdean.

(12) JOSÉ MÚGICA: *Carlistas, moderados y progresistas* (C. A. Luzuriaga), San Sebastián, 1950, pp. 151-152.